

Donostia, 2022ko azaroaren 24a

169/22 PRENTSA OHARRA

ALDAKETAK, AZAROAREN 25EAN, OSTIRALEAN, EGINGO DIREN MANIFESTAZIOAK DIRELA ETA

Azaroaren 25ean, ostiralean, manifestazioak egingo dira Donostian, **10:00etatik 11:00etara eta 19:00etatik 20:30era** gutxi gorabehera, eta ondorioz aldaketa hauek egingo dira Dbuseko zerbitzuetan:

• 5-Benta Berri, 16-Igeldo, 18-Seminarioa eta 25-Benta Berri-Añorga:

- Erdialderantz: bukaerako geltokiak Urbietan 6an eta Urbietan 20an edukiko dute, hurrenez hurren.
Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia, Okendokoak, Boulevardekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbietan 6ra edo Urbietan 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.
- Antigu alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6-20tik aurrera.
Okendoko geltokiak, Boulevardekoa eta Gipuzkoa Plazakoa kenduko dira eta **Urbietan 6ra edo Urbietan 20ra** eramango dira, hurrenez hurren.

• 21-Mutualitateak-Anoeta, 26-Amara-Martutene eta 28-Amara-Ospitaleak:

- Erdialderantz: Antso Jakitunaren Hiribidetik, Easo kaletik eta Askatasunaren Hiribidetik joango dira, eta Urbietan 6-12an bukaerako geldialdia egingo dute.
Okendoko geltokia, Boulevardekoa, Gernikako Arbolakoa eta M^a Cristina Zubikoa kenduko dira. **Urbietan 6ra eta 12ra** eramango dira.
- Amara alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6-12tik aurrera.
Boulevardeko geltokiak kenduko dira eta **Urbietan 6ra eta 12ra** eramango dira.

• 19-Aiete-Bera Bera:

- Erdialderantz: Aldapetatik jaistean Easotik eta Askatasunaren Hiribidetik sartuko da, eta bukaerako geldialdia Urbietan 6an egingo du.
Okendoko eta Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokiak kenduko dira. **Urbietan 6ra** eramango dira.
- Aiete alderantz: ohiko ibilbidea Urbietan 6tik aurrera.
Gipuzkoa Plaza-Peñafloridako geltokia kenduko da. **Urbietan 6ra** eramango da.

• 8 Gros-Intxaurrondo, 13-Altza, 14-Bidebieta eta 29-Hego Intxaurrondo Sur:

- Erdialderantz: autobusak Colón pasealekuraino baino ez dira iritsiko, eta Mirakruz Pinudian egingo dute bukaerako geldialdia (8 linea, Iparragirren).

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoak, Gipuzkoako Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirrera).

- Auzoetarantz: ibilbide normala Mirakruz-Pinuditik (8 linea Iparragirren).

Boulevardeko geltokiak, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidekoak kenduko dira. Mirakruzera eramango dira (**8 linea** Iparragirrera).

• **9-Egia-Intxaurrondo eta 42-Aldapa-Egia:**

- Erdialderantz: autobusak Frantzia pasealekutik, M^a Cristina Zubitik eta Foruen pasealekutik iritsiko dira Santa Katalina Zubiraino (bukaerako geltokia), eta ohiko ibilbideari ekingo diote berriro. **42 linea** Colón pasealekutik ibiliko da.

Euskadi Plazako geltokia, Kursaalekoa, Askatasunaren Hiribidekoa eta Boulevardekoak kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

- Egia alderantz: Santa Katalina Zubitik (bukaerako geltokia) beren ibilbideari berrekingo diote Egiantz.

Boulevardeko geltokiak eta Askatasunaren Hiribidekoa kenduko dira. **Santa Katalina Zubira** eramango dira.

• **31-Intxaurrondo-Ospitaleak-Altza:**

- Aiete alderantz: Lapurdi plazatik sartu eta Colón pasealekutik, Frantzia pasealekutik, FG Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Pio XII.etik eta Antso Jakitunaren kaletik igaroko da, eta Easo kaletik Lizarra kalera iritsiko da (geldialdia behin-behineko zutoinean). Hortik aurrera, bere ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Kursaaleko geltokia, Boulevardekoa, Urbieta 6koa eta Larramendikoa kenduko dira, eta **Colónera eta Lizarra kalera** lekualdatuko dira.

- Intxaurrondo-Altza alderantz: Aldapetatik jaistean, San Bartolomen sartuko dira autobusak, eta Urbietatik (geldialdia Urbieta 38an), Parke kaletik, Gernikako Arbolatik, Foruen pasealekutik (17 linearen geldialdiak) eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango dira. Mirakruzetik ohiko ibilbideari helduko diote berriro.

Easo 27ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 3koa kenduko dira, eta **Urbieta 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• **33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio eta 40-Gros-Antiguo-Igara:**

- Antiguo alderantz: Colón pasealekutik aurrera, Frantzia pasealekutik, Iparreko Geltokitik, F.G. Lorcatik, Agirre Lehendakariaren Zubitik, Pio XII.etik, Antso Jakitunetik, Easotik eta San Martin kaletik (geldialdia San Martin 48ko behin-behineko zutoinean) joango dira, eta Antiguorako ibilbidea egiten jarraituko dute.

Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia eta Urbieta 20koa kenduko dira. **San Martin 48ra** eramango dira.

- Gros alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietatik, Arrasatetik, Urbietatik (geldialdia Urbietara 38an eginez), Mendeurrenetik, Gernikako Arbolatik, Foruetatik eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango dira, eta ohiko ibilbideari ekingo diote berriro Mirakruzerantz.

Askatasunaren Hiribidea 21, Askatasunaren Hiribidea 19 eta Askatasunaren Hiribidea 3 geltokiak kenduko dira eta **Urbietara 38ra eta Santa Katalina zubira** lekualdatuko dira.

• **36-San Roke-Aldakonea:**

- San Roke alderantz: Frantzia pasealekutik joango da, Iparreko Geltokitik, Primetik, Morazatik, Urbietatik, Pedro Egañatik, Easo kaletik eta San Bartolometik, eta Urbietara 38an bere ohiko ibilbideari helduko dio.

Euskadi Plazako geltokia, Askatasunaren Hiribidea 20koa eta Urbietara 12koa kenduko dira, eta **Iparreko Geltokira eta Urbietara 38ra** lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: Easo plazatik aurrera, Morazatik, Urbietara kaletik, Parke kaletik, Gernikako Arbolatik, Foruetatik eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta ohiko ibilbidea egiteari ekingo dio Mirakruzerantz.

Easo 27ko geltokia eta Askatasunaren Hiribidea 19koa kenduko dira, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• **37-Rodil-Zorroaga:**

- Zorroaga alderantz: Colón pasealekutik joango da, eta Frantzia pasealekutik, eta hortik aurrera ohiko ibilbidea egiten jarraituko du.

Kursaaleko geltokia, Gipuzkoa Plazakoa eta Askatasunaren Hiribidea 7koa kenduko dira, eta **Colónera eta Iparreko Geltokira** lekualdatuko dira.

- Rodil alderantz: Antso Jakituna 35etik aurrera, Gernikako Arbolatik, Foruen pasealekutik (17 linearen geldialdiak) eta Santa Katalina Zubitik (geldialdia behin-behineko zutoinean) joango da, eta hortik aurrera, bere ohiko ibilbidea egingo du Mirakruzerantz.

Easo Plaza, Easo 27 eta Askatasunaren Hiribidea 21 geltokiak kenduko dira. **Bizkaia Pasealekura, Gernikako Arbolara, M^a Cristina Zubira eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko dira.

• **45-Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:**

- Antiguo alderantz: F.G. Lorcarantz jarraituko dute, Agirre Lehendakariaren Zubirantz, Pio XII. erantz, Antso Jakitunerantz, Easorantz eta San Martin kalerantz (geldialdia behin-behineko zutoinean, San Martin 48an), eta Antiguorako ibilbidea egiten jarraituko du. Askatasunaren Hiribidea 18ko geltokia eta Urbietara 20koa kenduko dira. **San Martin 48ra** eramango dira.

- Geltokiak alderantz: Kontxa pasealekutik aurrera, Zubietara, Arrasatera, Urbietara (geldialdia Urbietara 38an eginez), Mendeurrenena, Gernikako Arbolara, Foruetara eta Santa Katalina Zubira joango da (geldialdia behin-behineko zutoinean), ohiko ibilbideari ekingo dio berriro Geltokietarantz.

Askatasunaren Hiribidea 31ko geltokia kenduko da, eta **Urbietara 38ra eta Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

• **46-San Antonio-Morlans:**

- Morlans alderantz: Colón pasealekutik aurrera, Frantzia pasealekura joango da, Iparreko Geltokira, Prim, Moraza, Urbietara, Pedro Egaña, Easo, San Bartolome eta Urbietara 38tik bere ibilbidea berreskuratuko du.

Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbietara 12 geltokiak kenduko dira. **Colónera, eta Urbietara 38ra** eramango dira.

- San Antonio alderantz: M^a Cristina Zubitik ez da Etxaide kalera sartuko. Santa Katalina Zubirantz jarraituko du (geldialdia behin-behineko zutoinean) eta bere ohiko ibilbideari ekingo dio berriro.

Askatasunaren Hiribidea 3ko geltokia kenduko da, eta **Santa Katalina Zubira** lekualdatuko da.

Informazio gehiagorako, Dbuseko webgunera jo (www.dbus.eus) edo 900 840 146 telefono zenbakira deitu.

